

Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra



Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra

1- XEDEA

- Eskolek hartu beharko dituzten neurren xedea da hezkuntza-jarduera garatu ahal izatea, beti ere **COVID-19aren hedatzea ekidin nahiaz hezkuntza-komunitatean**; hau da, kalitatezko hezkuntzarako eskubidea bermatuko zaie gure ikasleei segurtasun eta osasun-baldintza onenetan, ikastetxeko langileentzat zein ikasleentzat.
- Ikastetxe bakoitzak, Protokolo Orokor honetan ezarritako jarraibideei eta osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraituz, egokitu egin beharko du bere jarduera, eta, horretaro, **Ikastetxearen Urteko Planean**.
- Ikastetxe bakoitzak **Kontingentzia Plan** bat osatuko du, Laneko Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuaren jarraibideei jarraiki egindako prebentzio eta higiene-neurriak argi eta garbi jasotzen dituen dokumentua.

2- ERANTZUNKIZUNAK

- Hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzukidetasuna eskatzen du kutsatze-arriskuak minimizatzeko eta eskolen egunerokotasuna berreskuratu ahal izateko bizi izan dugun osasun-krisiaren ostean.

Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra

3- AGERTOKIAK

- 1. agertokia:** Ikasturtea irailean hasiko da, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan. Ebazpenetan garatzen den bezala, aurrez aurreko hezkuntza-jardueran segurtasun eta osasun-neurri batzuei eutsiko zaie, betiere osasun Saileko agintarien jarraibideei eutsiz.
- **2. agertokia:** Tarteko bigarren jokaleku bat, osasun-egoerak prebentzio-neurriak gomendatzen dituen, ikastetxeak irakaskuntza-jarduera malgutasunez antolatzea behartuko dituen, aurrez aurreko jarduerak eta jarduerak telematikoak txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko. Bakarkako instrumentuak aurrez aurreko saioak izango dituzte. Lengoia Musikaleko saioak telematikoak emango dira eta talde instrumentalak bi taldeetan banatuko dira eta hamabostean behin izango dituzte entsegu presentzialak txandakatu.
- 3. agertokia:** Konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko ditu. Kasu honetan, beste behin, eta osasun arloko agintariek ezarri dituzten neurrien arabera, antolakuntza eta eskolako langileen presentzia arautzeko neurriak hartuko dira, ikasleen hezkuntza-jarduerak ez dezan inolako etenik izan. Nahiz eta irakaskuntza ez-presentzialaren jarduerak izan, ikasleak telematikoak konektatzeko beraiekin ikasgelarako ezarritako ordutegia mantenduko da, hezkuntza-jardueraren erritmoari eta jarraipenari eusteko.

Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra

4. HIGIENE-NEURRIAK


-Prebentziorako, behar –beharrezkoa da ikasleen eta eskolako langileen –irakasle, zerbitzuetako edo garbiketako langileak...- zein eskola-barrutiko higie-neurriak areagotzea. Neurri horiek eraginkorrak izan daitezzen, eskolak dagokion plangintza egin beharko du.

-Maskarak:

- Arau orokor gisa, ikastetxeko langile eta ikasle guztiek nahitaez erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro.
- Irakasleek maskara erabili behar dute beti, baita bizikidetza-talde egonkorretan ere.
- 6 urtera arte maskara ez da nahitaezkoa izango, nahiz eta, posible den kasuetan, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen den.
- 6 urtetik aurrera maskara nahitaez erabili beharko da, baita bizikidetza-talde egonkorretan ere.
- Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.

Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra

- **Zentroko espazio komunean pertsonak elkartzea saihestu**; edukiera mugatuko da, bilerak 10 lagunetik gorako pertsona elkartzetik gabe egingo dira, eta pertsonen arteko distantzia mantenduz eta maskara jantzita. Arrisku-eremuak berrikusiko dira, hala nola kafe-makina, edo birusa transmititzen lagun dezaketen langileen arteko beste interakzio batzuk.



Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra

5. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

- COVID-19 arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.
- Beren etxeko norbaitek COVID-19aren dagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- Gaitzaren sintomak antzemanaz gero (sukarra, eztula, arnas hartzeko zailtasunak...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari, gehienbat bat ikaslea adingabea denean.
- Gaitzaren sintomak eskolako langileren batean agertuko balira, honek eskola urtzi eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.
- Haur edo irakasleren batek COVID-19n positibo emanez gero, kontaktutzat hartuko da gainerako ikasgela edo taldea, haurrak zaintzeko edo hezteko ingurunean, eta etxeko berrogeialdian egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita. Osasun Sailaren SARS-Cov koronabirusa zaintzeko protokoloarek jarraituko zaio (<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>) eta zaintza epidemiologikoko unitatea izango da.

Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra

6. AURREZ-AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK

6.1 Prebentzio neurri orokorrak

Oinarrizko prebentzio-erreferentzietatik abiatuta, orokorrean eta – ikasturtearen hasierari begira, **1. AGERTOKIA:**

- **1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean.** Segurtasun-distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, higiene-neurri egokiak ezarriko dira kutsatzeak saihesteko. Maskara nahitaez erabili beharko da 1,5 metroko distantzia mantendu arren.
- **Bizikidetza-talde egonkorrek** ez dute ikastetxeko beste taldeekin harremanik izango.
- **Aurrez aurreko irakaskuntza** bermatuko zaie ikasle guztiei.

2020-2021 IKASTURTEA

COVID-19aren AURREAN MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA





JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

1- MUSIKA ESKOLARA SARTU AURRETIK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

- COVID-19 arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren osasun-zentrora deitu beharko dute.
- Bakoitzak bere maskara jantzita ekarri beharko du.
- Bakoitzak bere instrumentua ekarri beharko du.
- Musika Eskolako jardunerako beharrezkoak ez diren tresna, jostailu,... ezin dira ekarri.

2- MUSIKA ESKOLARA SARRERA

- Musika eskolara iristean eskuak garbituko dira sarreran egongo den gel hidroalkoholikoarekin.
- Eskolako ateak zabalik mantenduko dira, pomoen kontaktua saihesteko.
- Antolakuntzarako sarrera ordua errespetatzea ezinbestekoa da.
- Taldeak eraikinaren kanpoan (musika eskolako jolastokian) itxarongo du taldeari dagokion irakaslea bila joan arte.
- Musika Eskolako eraikinean (lurrean) jarrita egongo diren ikurrei kasu egin behar zaie.
- Eskaileratako eskulekuak ahalik eta gutxien ikutu behar dira.
- Komunak ahalik eta gutxien erabiltzen saiatu behar da.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

3- GELA BARRUAN

- Taldeak 15 ikasleetik beherakoak izango dira.
- Bakoitzak bere materiala etxetik ekarriko du (liburuak, arkatza, borragoma, margoak,...).
- Ikasle bakoitzak bere instrumentua ekarriko du (pianoa, bateria, ezik).
- Gela bakoitzak bere gel hidroalkoholikoa izango du eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko.
- Gela bakoitzak ontzi edo paperontzi espezifiko bat izango du (paperezko zapiak, ...).

3.1 ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

- COVID-19 arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.
- Beren etxeko norbaitek COVID-19aren dagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- Gaitzaren sintomak antzemanenez gero (sukarra, eztula, arnas hartzeko zailtasunak...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari, gehienbat bat ikaslea adingabea denean.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

- Haur edo irakasleren batek COVID-19an positibo emanez gero, kontaktuz hartuko da gainerako ikasgela edo taldea, haurrak zaintzeko edo hezteko ingurunean, eta etxeko berrogeialdian egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita. Osasun Sailaren SARS-Cov koronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio (<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>) eta zaintza epidemiologikoko unitatea izango da.





JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

4- ADMINISTRARITZA ETA ZUZENDARITZA TALDEA

4.1 NEURRI ERATZAILEAK

- Arriskua izan lezaketen langileak identifikatu eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi.
- Aurrez aurreko lanari lehenetsua eman.
- Informazioa eman, lanpostuetan 1,5 metroko distantzia mantendu.
- Gurasoekin elkarreragina, zaintzaileekin: hitzordua, arreta telefonikoa, arreta online.
- Sintomak dituen langilearekin tratamendu pertsonala izan: araututako protokoloa jarraitu.

4.2 BABES KOLEKTIBOA

- Erabiltzailearen arreta distantzia mantenduz eta maskarekin emango da.
- Bulegoaren aireztapena eta garbitasuna handiagoa izango da.




JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

4.3 HIGIENE PERTSONALA

- Eskuak sarri garbitu.
- Arnas higie neurriak: kontuz eztula egiterakoan.
- Hondakinen kudeaketa: zakarrontziak.
- Agurtzerakoan eskua ez eman.
- Garbitasuna areagotu.

4.4 FORMAKUNTZA

- Informatu eta informazioa zabaldu.
- GARRANTZITSUA:** sintomak komunikatu.





JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

5- IRAKASLE TALDEA

1. Oso garrantzitsua da arriskua izan lezaketen langileak identifikatu eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari jakinaraztea.
2. 6 urtetik beherako ikasleekin antolaketa neurri bereziak hartuko dira (zaila da beraiekin distantzia mantentzea).
3. Aurreko puntuetan hartutako neurriez gain, beste hauek ere hartuko dira:

5.1 NEURRI ERATZAILEAK:

- Familiei jakinarazi garrantzitsua dela sintoma izan ezkeru komunikatu egin behar dela eta higienaren garrantzia azpimarratu.
- Gelak ondo desinfektatu.
- Taldeak 15 ikasleetik beherakoak izango dira.
- Higiene baliabideen etengabeko berrezartzea.
- Sarrera/irteerak kontrolatu.
- Kasuren bat detektatu ezkeru neurriak hartu: araututako protokoloa jarraitu.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

5.2 BAKOITZAK HARTU BEHARREKO NEURRIAK:

- Maskaren erabilera eta gel hidroalkoholikoak geletan izan.
- Hondakinen kudeaketa: zakarrontziak .
- Irakasle ikasle arteko distantziak mantendu; 1,5 metro.
- Haizezko instrumentuen arteko distantzia 2 metrokoa izango da.
- Haizezko instrumentuko ikasleek instrumentua jotzerakoan kenduko dute maskara.
- Haizezko instrumentuen geletan ikasle aldaketa bakoitzeko lurra fregonarekin pasatuko da.
- Ikasle aldaketa bakoitzean aulkiak eta atrilak garbituko dira.
- Gela aireztatuta eduki behar da.
- Ikasle bakoitzak bere instrumentua ekarri behar du (pianoa ezik). Perkusioaren kasuan ikasle bakoitzak bere baketak ekarri behar ditu.
- Puntualitatea oso garrantzitsua da.
- Gurasoek ezin dute eraikina seme/alabei itxaroten egoteko erabili, patioan itsaron dezakete baina distantziak mantenduz.
- Musika eta Mugimendua eta Lengoaia Musikaleko klase ondorenean gelako lurra desinfektatuko da mopa pasatuz.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

6. ERAIKINAREN NEURRIAK

- Sarrera/irteerako seinaleak errespetatuko dira.
- Eskailerak igotzean eskubi alde erabiliko da (lurrean egongo diren seinaleak jarraitu).
- Eskailerak jeistean eskubi alde erabiliko da (lurrean egongo diren seinaleak jarraitu).
- Eraikinaren erabilera ikasleentzat eta langileentzat izango da.
- Gurasoek ezingo dute eraikina seme/alabei itxaroten egoteko erabili, patioan itsaron dezakete baina distantziak mantenduz.
- Eraikinaren garbitasuna egunero egingo da.
- Higiene baliabideen etengabeko berrezartzea egingo da.
- Gela guztiek aireztapen naturala izango dute.
- Musika eta Mugimenduko ikasleek beraien instrumentu txikiak ekarriko dituzte (panderoa, bi makila, etxean egindako marakak, koloretako zapiak,...).
- Musika eta Mugimendua eta Lengoaia Musikaleko klase ondorenean gelako lurra desinfektatuko da mopa bidez.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAKO PROTOKOLOA

7. IKASGELAN GARAPENA

- Musika Goiztiarreko taldeak 7 ikasletik beherakoak izango dira.
- Musika eta Mugimenduko taldeak 12 ikasletik beherakoak izango dira.
- Lengoia Musikaleko taldeak 15 ikasletik beherakoak izango dira.
- Instrumentuetako taldeak 15 ikasletik beherakoak izango dira.
- Abesbatzako taldeak 15 ikasletik beherakoak izango dira.
- Ikasle bakoitzak bere instrumentua ekarriko du (pianoa ezik).
- Musika eskolako instrumentua ikasleak erabili ondoren, desinfektatu egingo da.
- Talde entseguetan ikasletik ikaslerako distantzia 1,5 metrotakoa izango da.
- Eskolaz kanpo egingo diren ekintzetan neurri guzti hauek kontutan hartuko dira.
- Haizezko instrumentuen geletan ikasle aldaketa bakoitzeko ikaslea egon den tokiko lurra fregonarekin pasatuko da.
- Gelak aireztapen naturala izango du.
- Taldeetako sarrera/irteerak egoki egiteko irakasleak antolatuko ditu.
- Taldeetako ikasleak ezingo dira eraikinaren barrura sartu irakasleak abisatu arte.
- Hondakinen kudeaketa: zakarrontziak .
- Ikasgela bakoitzak aterkiak uzteko ontzia izango du.